

Sanpedroak gozagarri

MUNGIA. Barikuan ekin eutsien udalerriko jaiei. Gaur baserritarren eguna ospatuko dabe eta heldu dan asteen be zahar eta gazteak asetzeko moduko ekitaldiak gertatu ditue herriburuan



MUNGIA

Biztanleak: 12.000 inguru
Euskaldunak: %59



Paraje ederrak eskaintzen ditu Mungia herriak.

Zelan ailegau

Udalerrria Bizkaiko lotune garrantzitsuenetako bat da. Bertan alkatzen dira autobide eta errepide nagusia. Beraz, horreetako edozein hartu leiteke Mungiara joateko.

Ondarea

Foruen plaza, udaletxea, Billela Torrea —k.o. 77. urteko inskripzioa ageri da horretan—, Zumetxagako ermitea, San Pedro elizea, eta

kanpoaldeko landatar auzoetako baserria zaharrak.

Aholkuak

Kanpoaldeko auzoetan barrura pasiaran jarduteko zapatak arinak erotea gomendagarria da.

Jateko

Remenetxe Erretegia (946253520), Bide Bieta Jatetxea (946740661), Arriotza Jatetxea (946744723).



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Urtero moduan, giro ederragaz hasi zituen sanpedroak Mungian. Hurrengo egunetan, ez da jaigirorik faltako herri horretan.

nahikoa berriak dira. XVIII. gizaldi hondarreko ikaragarritzko batek sute txiki-txiki egin zituan bazterrok, eta gerokoak dira bizitoki gehientsuenak. Mungian, beste alde batetik, asmo handiko urigintza egitasmoak garatu ditue. Halandabe, uriburu inguruko auzoek sasoi bateko nekazal etxaldeen xarma ondo gorde dabe.

Bada, udalerrria sakonago ezagutu gura daben bisitariak herri eraikuntzei erreparau behar deutesie, nahitaez. Horreek udaletxe plazan hasi leikie txangoa. Eraikin handinahia da gobernu gunea. Osteratxoan aurrera, Billela torrera joan leitez. Erdi Aroko gotorlekua 70. hamarkadan barritu eben. Egun, kultura etxe gisara erabiltzen dau Mungiako Udalak. Billela bitxia da kristo ondorengo 77. urteko inskripzioa daukalako horma batean —erromatarak udalerrrian egon ziran erakusle—. Torretik gertu, San Pedro eliza ageri da. XIII. mendeko tenplua da, baina sasoi hartako osagarri guztiak ia galdu ditu —kapitel batzuk gorde ditue Bilboko Museo Arkeologikoan—. Jata mendipean, amaitzeko, San Miguel de Zumetxagako ermitea bisitatu leiteke. Hori be XIII. mendeko otoitzu gunea da. Ermita erromanikoa bakar-tutako muino batean altxatu eben. Horregaitik edo, uriak historia zehar pairatutako era-soetatik salbu izan da.

Herriburuan jardun eta Mungiako bazter danak ezagutzeko osteratxo osatu gura dabenek kanpoaldeko auzoak hartu leikie jopuntu. Horreetan bai igarriko dabe landatar etxaldeen xarma eta lasaitasuna.

Mungian, oro har, San Pedro euskal jaiez ondo gozau, uriburu eraikuntza txukunak miretsi eta inguruko nekazal eremuetan barrura pasiaran jarduteko txango ederrak egin leitez.

Iban Ocio | MUNGIA

Sanpedroak abian dira. Mungiarrek barikuan ekin eutsien herrialdeko jai entzutetsuenetakoei. Txupinazoa bota ostean, atzo eta arainegun orotariko ekitaldiak gertatu zituen udalerrian: kirol norgehiagokak —arrantzea, rugbya, futbola, pelotea...—, bertso kantaldiak, euskal dantzak, su artifizialak, txistulari, trikitilari eta abarren kalejirak, eta, noski, kontzertuak. Honezkeroko ohetik altzau ezinik ibiliko da bat baino gehiago.

Sanpedrotxu eta Sukalki Eguna

Gaur, beste alde batetik, sanpedrotxu ospatuko dabe Mun-

gian. Askok baserritarren eguna deitzen deutsoe jardunaldiari. Izan be, landatar giroko ekin-tzak abiatzen ditue udalerrian non-nahi. Goiz-goizean, adibidez, Matxin eta Foruen enparantzetan nekazal produktuak saltzeko erakus-mahaiak atonduko ditue. Eguerdia arte iraungo dau baserriko ekoizkimen agerketak. Azokan, ganera, perretxiko eta onddoen dastaketea atondu dabe Mungiako Mikologi Elkarteko kideek.

Goizean be, Torrebillela parkean animalia kumeen erakusketa egingo dabe. Arratsalderako lagako ditue jotzen dantzaldia eta Sorbeltz taldearen kontzertua. Gero, atsedean hartzeko unea helduko jake mungiarrei.

Izan be, heldu dan asteen jentana asetzeko moduko jai egitaraua eskainiko deutesie bertakoei eta udalerrira joandako lagunei. Eguenean, patata arrautzopil lehiaketea egingo dabe Uriguen parkean. Barikuan, pelota partidak jokatu eta Pao-pao orkestreak kontzertua emango dau. Txostenan, barriz, Pi.L.T. taldeak joko dau; ziurra da gazteak erruz bilduko dira horrerako. Zapatua batez be zaharren gozamenarako ekitaldiak prestatu ditue. Eta domekan, amaitzeko, jaiei amaiera emongo deutse Sukalki Egunak. Goizean Uriguen parkean abiatuko dabe bazkari prestaketea; Mungiako Gure Ametsa Txistulari alkarteak eta trikitilariak alaitu-

ko ditue berdeguneko bazterrak. Arratsaldean izango da sari banaketea; gauean, barriz, Foruen Enparantzan agurtuko ditue 2002 urteko Sanpedroak. Halandabe, garagarriaren 12, 13, 14 eta 15ean XVIII Kepa Deunaren Idi-probak jokatu ditue Mungian.

Bertoko eraikuntzak

Jaiak bizi eta Mungian barrura pasiaran jardun gura dabenek laster ohartuko dira uri moderno dala, uriburua ororen gantetik. Kostaldea, barrualde eta Bilbo arteko autopista nagusiek Mungia daukie alkargune; errepide sarea etengabe handitu eta hobetu dabe berton. Udalerrian, ganera, etxe zaharrak be